



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko irailaren 23a

14. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzen duena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetu eta Kontseilua kentzen duena (6. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da hipoteka-araubidea alda dezan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen dezan Nafarroan ETB LTDaren bidez ikusteko aukera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da ondarearen gaineko zerga berrezartzearen aurka ager dadin. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala jar dezan abian koloneko minbiziazko detekzio goiztiarrerako programa. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan egungo espetxea dagoen lurzatiaren lagapena lortzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Zubietako Udalarekin Miguel Ángel Mindegua Labayen aizkolariaren omenezko eskultura bat egite aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Haurren Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

—Adierazpen instituzionala, Alzheimerraren Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen lan eskaintzei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (19. or.).

—Galdera, kontabilitate nazionalari buruzko arauak 2011ko eta 2012ko kontuetan aplikatzeak izanen duen eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (20. or.).

—Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (20. or.).

—Galdera, Nafarroako Volkswagengenero prestakuntza zentroari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (21. or.).

—Galdera, hogeita bi pertsona Nafarroa ezagutzera gonbidatuta egin den kanpaina turistikoaren kostuari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (22. or.).

—Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua murrizteari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egin (23. or.).

—Galdera, oinarritzko errenta eskatzeko egin beharreko izapideak arintzeari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (24. or.).

—Galdera, 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (25. or.).

—Galdera, jakiteko abiadura handiko trenera zenbat diru bideratzeko asmoa dagoen 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (25. or.).

—Galdera, Reyno Arena kiroldegiaeren ustiapen-kontuen emaitzari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (26. or.).

—Galdera, Donejakue Bideko autobiaeren eraikuntzaren emakida-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (26. or.).

—Galdera, Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (27. or.).

—Galdera, Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (27. or.).

—Galdera, zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (28. or.).

—Galdera, Enplegu Planarekin lotutako baliabideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (28. or.).

—Galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (29. or.).

—Galdera, Audenasari 2011n ordainduko zaion diru kopuruari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (29. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

—3/2011 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 31koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsia-  
ren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (30. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 14an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentura igorri du Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.-** Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.-** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proiektua, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 55. artikuluan 1. idatz-zatian ezartzen duenez, Nafarroari dagokio irratia eta telebistaren araubidea lege bidez garatzea, baita hura betearaztea ere, irati eta telebistaren estatutu juridikoa arautzen duen legean ezartzen den moduan eta kasuetan. Artikulu horrek 2. idatz-zatian xedatzen duenez, berari dagokio, halaber, prentsaren araubideaz Estatuak dituen oinarrizko arauak eta, oro har, hedabide guztiei buruzkoak, lege bidez garatzea eta betearaztea.

Nafarroak, bere eskumenez baliatuz, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuena.

Foru lege hori uztailaren 12ko 25/1994 Legean xedatutakoaren esparruan eman zen. Lege horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikoari gehitu zitzaion Kontseiluaren urriaren 3ko 89/552/EEE Zuzentaraua, irati eta telebistaren arloko jarduerak betetzeari dagokionez Batasuneko kide diren estatuek emandako lege, erregelamendu eta administrazio xedapen batzuk koordinatzeari buruzkoa.

Azken urteotan, ikus-entzunezkoen sektoreak bilakaera azkarra bizi izan du, teknologia digitalaren ezarpenari eta Interneten agerpenari esker; horrek erabiltzaileei nabarmen errazten die zerbitzuez baliatzea, baina aldi berean ikus-entzuleak sakabanatzen ditu, eta negozio ereduak aldatzen.

Faktore multzo hori dela eta, Europar Batasunean nahiz Estatuan hainbat arau onetsi dira, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea onetsi zenean zegoen arau-esparrua asko aldatu dutenak.

Europar Batasunaren esparruan, aipatzekoa da 2007/65/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2007ko abenduaren 11n emana, zeinak aldatu egiten baitu Kontseiluaren 89/552/EEE Zuzentaraua, irrtati eta telebistaren arloko jarduerak betetzeari dagokionez Batasuneko kide diren estatuak emandako lege, erregelamendu eta administrazio xedapen batzuk koordintzeari buruzkoa.

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren bidez egin zen zuzentarau horren transposizioa Espainiako ordenamendu juridikoan; lege horren xedea zuzentzarauaren transposizio hutsetik harago doa, esparru juridiko egonkorra ezarri nahi duelako, ordura arte indarra izandako legeria zatikatu eta zaharkitua gainditu, eta orokorragoa izan nahi zuena, alegia.

Azaldutako aldaketen muntaren ondorioz, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena, tresna juridiko desegokia da telebista eta irrtati bidezko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak arautzeko, ez baitator bat Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrean jasotako xedapenekin. Arautze hori Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu beharrekoa da, Espainiako Konstituzioan Estatuari aitortzen zaizkion eskumen eskusiboak baliatuz eman baita, zehazki, 149.1.27 artikuluan aurreikusitakoaz, prentsaren, irrtatiaren, telebistaren eta, orokorrean, hedabide guztien araubideari buruzko oinarritzko arauak ematekoaz, eta 149.1.21 artikuluan aurreikusitakoaz, telekomunikazioen arloan Estatuari aitortzen zaion eskumen eskusiboa esleitzen dionaz, hain zuzen. Arau-esparru berri horretan, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio irrtatiaren eta telebistaren araubidea lege bidez garatu eta hura betearazteko eskumenak erabiltzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak esleitzen dizkiona.

Horrez gain, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen, Konstituzioaren balio eta printzipioak bermatu eta sustatzeaz eta bereziki aniztasuna, gazteria eta haurrak babesteaz arduratuko den organo independentea.

Kontseilua sortu zeneko testuinguruan, tokiko telebisten kopuruak gora eginen zuela aurreikusiten zen, telekomunikazioen liberalizazio prozesuaren ondorioz eta Lurreko Uhin bidezko Tokiko Telebistari buruzko abenduaren 22ko 41/1995 Legea onetsi ondoren. Hamar urte iraganik, errealitateak erakutsi du ikus-entzunezkoen merkatuan aurrerapen handiak gertatu direla, baina ez toki esparruan, nazionalean eta nazioartekoan baizik, lurreko teknologia digitalaren (LTD) eta Interneten bidez.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, bere eginkizunak betez, lan handia egin du sortu zenez geroztik; hala, zenbait ekintza eta arau gauzatu ditu, esate baterako Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa sortu (2003), Nafarroan Ikus-entzunezko edukien kalitaterako Koerregulazio Kodea izenpetu (2010), eta adingabeak telebistaren aurrean babesteko mekanismoen erabilera arautzen duen urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretua sustatu. Horiekin guztiekin, oinarri sendoak ezarri ditu arlo honetan.

Era berean, uztailaren 5eko 18/2001 Foru legearen 29. artikulurekin bat, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Ikus-entzunezko Hedabideen Titularitatearen Erregistroa sortu zuen, zeinaren jardun-araubidea 2003ko maiatzaren 6an onetsitako Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren Estatutu Organiko eta Funtzionamendukoaren VII. kapituluan jaso zen. Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 33. artikuluari jarraikiz, Nafarroako Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Emailen Erregistroak ordeztuko du erregistro hori. Horrenbestez, erregistro berria arautzen duen foru dekretua onetsi bitartean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren Estatutu Organiko eta Funtzionamendukoaren VII. kapituluan xedatutakoa aplikatuko da, indarreko legeriari kontra egiten ez dion orotan.

2007. urtearen amaieraz geroztik, krisi ekonomikoaren egoera orokorrak gastu publikoa mugaizteko politikak hartu beharra ekarri du, zergen bilketan gertatutako jaitsierara egokitzeko, eta egungo jokaleku ekonomikoan Nafarroako enpresei eta herritarrei laguntzeko neurriak ezarri beharra ere bai.

Hortaz, besteak beste, Foru Komunitateko Administrazioaren goi karguen eta zuzendaritza organoen murrizketa handia egitea erabaki da, eta sozietate publikoak berrantolatzeke abian den prozesua ere burutuko da, helburua betiere Administrazioan austeritatea eta efizientzia areagotzea izanik, baina ematen diren zerbitzu publikoen kalitateari eutsiz.

Horiek horrela, azaldutako arrazoiengatik, bidezkoa da indargabetzea uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuena, eta Kontseilua desegitea; haren eginkizunak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunak beteko ditu aurrerantzean.

**1. artikulua.** Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzea.

1. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea indargabetzen da.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua desegiten da. Haren nortasun juridikoa foru lege honek indarra hartzen duen egunean iraungiko da.

**2. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ikus-entzunezkoen arloko eginkizunak betetzea.

Ikus-entzunezkoen arloko eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu arlo honetan egun indarra duen araudia bete dadin, eta bere gain hartuko ditu Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak betetzen zituen eginkizunak, araudiarekin bat datozenak.

**Lehen xedapen gehigarria.** Langileen atxikipeña.

Foru lege honek indarra hartzen duenean Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren zerbitzuan ari diren funtzionarioak Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioak izanen dira aurrerantzean. Horretarako, funtzio publikoaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Ondarearen gaineko araubidea.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren ondasun eta eskubideak arlo horretako eskumena duen departamentuari atxikiko zaizkio, Nafarroako Foru Komunitatean ondarearen arloan aplikatu beharreko araudiarekin bat.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Aurrekontuko aldaketak.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak beharrezkoak diren funts aldaketak egin ahal izanen ditu, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2011. gastuen aurrekontuan ezarritako kontu-sailen

eta ikus-entzunezkoen arloko eskumena duen departamentuaren aurrekontuko kontu-sailen artekoak, eta ez dira egonen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eta 44.etik 59.era bitartekoetan ezarritako mugen menpe.

**Xedapen iragankor bakarra.** Ikus-entzunezko Hedabideen Titularitatearen Erregistroaren atxikipeña eta aldi baterako araubidea.

1. Ikus-entzunezko Hedabideen Titularitatearen Erregistroa ikus-entzunezkoen arloan eskumena duen departamentuari atxiki zaio.

2. Nafarroako Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Emaleen Erregistroa, Ikus-entzunezko Hedabideen Titularitatearen egungo Erregistroa ordeztuko duena, arautzen duen foru dekretua onetsi bitartean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren Estatutu Organikoaren eta Funtzionamendukoaren VII. kapituluaren xedatutakoa aplikatuko da, indarrekoa legeriari kontra egiten ez dion orotan, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen 29.4 artikuluan ezarritakoarekin bat. Estatutua 2003ko maiatzaren 6an onetsi zen.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indargabetzeak.

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea garatzeko emandako maila beheagoko xedapen guztiak indargabetzen dira.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren aiPUAK arautan.

Lege edo erregelamenduzko edozein arautan Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaz egiten diren aipamenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ikus-entzunezkoen arloko eskumena duen unitate organikoaz egiten direla ulertuko da.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proiektua, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetu eta Kontseilua kentzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 14an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentura igorri du Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetu eta Kontseilua kentzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.-** Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetu eta Kontseilua kentzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.-** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proiektua, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetu eta Kontseilua kentzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 55. artikuluko 1. idatz-zatian ezartzen

duenez, Nafarroari dagokio irratidifusioaren eta telebistaren araubidea legez garatu eta betearaztea, Irrati eta Telebistaren Estatutu juridikoa arautzen duen legean ezarritako modu eta kasuetan. Artikulu horrek, 2. idatz-zatian, xedatzen du berari dagokiola, halaber, prentsaren araubideaz Estatuak dituen oinarritzko arauak eta, oro har, gizarte-komunikabide guztiei buruzkoak, lege bidez garatzea eta betearaztea.

Urtarrilaren 10eko 4/1980 Legearen bidez, Irrati eta Telebistaren Estatutua onetsi zen. 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Espainiako Irrati-Telebistak lurraldeko ordezkari bat izanen zuen autonomia erkidego bakoitzean. Ordezkari horrek kontseilu aholku-emaile bat izanen zuen, autonomia erkidegoko gobernu organoak izendatua eta haren osaera lurralde-lege baten bidez zehaztuta.

Nafarroak, bere eskumenak erabiliz, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea onetsi zuen. Foru legearen 1. artikuluan ezarri zenez, Kontseiluak bere gain hartzen du Nafarroako Foru Komunitateak RTVEen dituen interesen ordezkapena, eta, aldi berean, RTVEren lurraldeko ordezkariaren aholku organoa ere bada.

Estatuaren Titulartasuneko Irratiari eta Telebistari buruzko ekainaren 5eko 17/2006 Legearen bidez, Irrati eta Telebistaren Estatutuari buruzko urtarrilaren 10eko 4/1980 Legearen zenbait artikulua indargabetu ziren, horien artean, 14. artikulua, eta legearen bosgarren xedapen iragankorraren 1. idatz-zatian, RTVE ente publikoa deuseztatu zen. Horren ordezkari da, hain zuzen ere, RTVE korporazioa.

RTVE korporazioaren antolaketa egitura berri- an ez dago RTVEren lurraldeko ordezkari- rik. Horrenbestez, bidezko da Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetzea eta aipatu kontseilua kentzea, hura sortzeko xede eta helburuak osorik bete baitira.

Bestalde, krisi ekonomikoaren testuinguru batean, beharrezkoa da administrazioaren funtzio- namendua arrazionalizatzea funtsezkoak ez diren organo horiek guztiak kenduz, austeritate eta era- gimena maila handiagoak lortze aldera.

**Artikulu bakarra.** Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetzea eta aipatu kontseilua kentzea.

1. Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea indargabetzen da.

2. Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea kentzen da.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indargabetzeak.

Indarrik gabe uzten dira Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea garatzeko emandako maila apalagoko xedapenak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,  
Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992  
Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 24ko 22/2008 Foru Legearen xedea da, zioen azalpenean aitortzen den moduan, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika oinarritu eta ziurtatzeko beharrezkoa den zerga-politika ezartzea.

2. artikulua Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen du. Horren asmoa da, esaten denez, “zergaren ondorio ekonomikoak erabat neutralizatzea, baina formalki deuseztatu gabe.” Hautatutako prozedura izan zen kuota osoaren ehuneko ehunaren hobari orokorra ezartzea, eta, halaber, kasuko aitorpena aurkezteko eta zergaren autoliquidazioa egiteko betebeharra kentzea.

Neurri horrek kaltegarria zirudien jada bere garaian; izan ere, egoera ekonomikoa gero eta larriagoa zen garaian, neurri horrek are gehiago ahultzen zuen ziklo aldaketa zela-eta nabarmen murrizten ari zen Nafarroako Ogasunak dirua biltzeko zeukan ahalmena. Egia da esan zitekeela –eta hala esan zen– zerga murrizketak familiek erabilgarri zuten errenta handitzeko balio zuela, eta, horrenbestez, horrek eragin biderkatzailea izanen zuen ekonomian, hain zuzen kontsumoan eta, beraz, eskari agregatuan izanen zuen eraginagatik. Baina gastuaren gehikuntzak eta zergen murrizketak ez dituzte ondorio kuantitatibo berberak; izan ere, zergen murrizketaren zati bat bakarrik itzultzen da zirkuitu ekonomikora; hain zuzen, krisi egoeretan murriztu ohi den zatia, espero izatekoa denez, aurrezpen-tasak areagotu egiten baitira. Horretaz gain, 2008an, moneta-politikaren eraginkortasun faltak eta deflazio arrisku handiak gomendatzen zuten jarduketa ausartak eta ugariak abian jartzea gastu publikoaren arloan. Hori dela eta, sektore publikoaren jarduteko ahalmena ahultzen zuen neurri bat erabat desegokizat har zitekeen.

Gertakarien bilakaerak azterketa hori berretsi du, eta desiragarriak iruditzen ez zaizkigun alboko ondorio batzuk izan dira; izan ere, diru-sarrera publikoen murrizketa izugarriari eta kontsolidazio fiskalerako proposamenari –azken honek zalantza sortzen du epeei eta zergen zehaztapenari dago-kenez– gehitu behar zaie errenta handien edo kapital-errenten aldeko desberdintasun fiskala.



Krisiak erakutsi du egungo zerga-sistema izugarri ahula dela eta higiezinen burbuilarekiko mendekotasun handia duela, gehienbat behin eta berriz egiten diren zerga-aldaketengatik. Bada, beharrezkoa da zerga-araubidearen aldaketa sakona egitea, zerga-sistema eraberritu eta arrazionalizatuko duena, beharrezkoa den ekitate horizontala eta bertikala gordeko duena eta prestazio sozialen sistema aurreratu bati eusteko bidea emanen duena.

Hala ere, fiskalitatearen gaineko hausnarketa sakon hori egiten ez den bitartean, beharrezkotzat jotzen dugu premiazko zenbait jarduketa abian jartzea arlo horretan. Horietako bat da Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea eta abenduaren 24ko 22/2008 Foru Legeari eginiko aldaketak deuseztatzea. Horretarako, espresuki errepikatzen dira foru lege horren indargabetzean aipatzen diren testuak.

Horrenbestez, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeak indarra hartuko du bere osotasunean, 33 bis arti-

kuluak izan ezik. Halaber, deuseztatu egingen da 6.3 artikuluko 2. eta 3. idatz-zatien indargabetzea, bai eta 34. artikuluko 2. idatz-zatiarena; 36, 37 eta 38. artikulua eta bigarren xedapen iragankorra-rena ere.

**Artikulu bakarra.** Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 24ko 22/2008 Foru Legeari 2. artikulua indargabetu eta ondorioz gabe utziko da. Haren bidez, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatu zen.

**Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe geratuko dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru Lege hau 2012ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da hipoteka-araubidea alda dezan.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita hipoteka-araubidea alda dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Krisiak eztanda egitearekin eta langabeziak gora egin izatearekin, ehunka mila familia mugako egoera batera iritsi da, ez baitira iristen beren oinarrizko premiak asetzera ere.

Botere Judizialaren Kontseilu nagusiaren datuen arabera, soilik 2007tik 2010era bitarte, Espainiako Estatuan 300.000 exekuzio hipotekario inguru gertatu ziren, eta aurreikuspenen arabera, 2011tik 2012ra 500.000 exekuziotara ere irits liteke.

Hori gertatzen denean, familiak beren etxebizitzaren galerari ez ezik, bizi arteko zigor finantzario bati ere aurre egin beharrean aurkitzen dira: banku-entitateak demanda bat aurkeztu du eta exekuzio hipotekarioko prozesua abiatzen da, eta

horren amaiera higiezina enkantean jartzea da. Enkantea eman gabe geratzen bada (eta hori, egungo krisialdiaren testuinguruan kasuen % 90an baino gehiagotan gertatzen da), banku-entitateak, egungo legedia eskutan, etxebizitza bereganatzen du tasazio-balioaren % 60 ordainduta (azken lege-aldaketaren ondoren), eta gelditzen den zorraren ordainketa –gehi interesak eta epaiketa-kostuak– erreklamatzeko jarraitzen die kaudimengabezia dauzkeen pertsonen, nominak, kontuak eta abarrekoak bahituz, eta abal-emaldeen ere bahiturak egitera ere jotzen du. Hau da, etxebizitza galtzeaz gainera, milaka familiak bizi arteko zigor finantzarioari egin behar izaten diete aurre, eta horrek beste zigor bat badakar berekin: bazterketa soziala eta ezkutuko ekonomia.

Finantza-entitateek etxebizitzak tasazio-balioaren % 60 ordainduta lortzea bideratzen duen legedia hau anomaloa eta gure inguruko beste herrialdeetako legedietan konparazio gabekoa izateaz gainera, ezezaguna zen familientzat hipoteka-kontratuak izenpetu zituztenean. Horri, gainera, honakoak gehitu behar zaizkio: hipoteka horietatik gehienak merkaturatzeko garaian erabili zen publizitate engainagarria, tasazioak balioaz gainerakoak izatea, eta kontratuetan erabilitako hizkera zaila, zeinak, orain aurkitu denaren arabera, gisa guztietako abusuzko klausulak ezkututzen baitzituen; esate baterako zoru-klausulak.

Onartezintzat eta guztiz zuzengabetzat jotzen dugu zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean, krisiaren ondorio guztiak hipoteka-kontratu alderek zaugarrienarentzat izatea, eta finantza-entitateek, bitartean, nahiz eta, neurri handi batean, egungo krisiaren erantzuleak izan, zergetatik ateratzen diren milioitako laguntzak jasotzea, beren gain inongo erantzukizunik hartu gabe, eta aldi berean, urtean milaka milioiko onurak sortzen jarraitzea.

Hemen azaldutako guztiak egungo esparru juridikoaren espirituaren aurka jotzen du, zeren eta etxebizitzarako eskubidea Konstituzioaren agindu bat baita, bereziki jasota datorrena Espainiako Konstituzioko 47. artikuluan, honakoa baitio:

“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Botere publikoek bideak jarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, eta dagozkion arauak ezarriko dituzte...” Eta 33. artikuluan ere bai, azken horrek jabetza pribaturako eskubidea eskubide horren eginkizun sozialera argiro mugatzen baitu (gaur egun sistematikoki urratzen da hori banku eta kutxek metatuta dauzkaten etxebizitza hutsen kasuan). 24. artikulua, bestalde, babes judiziala bermatzen du (exekuzio hipotekarioko prozesuetan urratzen da, halakoetan babesgabatasun nabarmena gertatzen baita). Kontuan hartzekoak dira, era berean, Espainiako Estatuak, etxebizitzarako eskubidearen arloan, nazioarteko itun lotesleak berrestera, onartu zituen konpromiso juridikoak; honakoak dira itun horiek: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (25. artikulua) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (11. artikulua), bereziki 4. oharrazpen orokorreko 4. zenbakitik aurrera –etxebizitza egoki baterako eskubidearen edukia zehazten du– eta 7. oharrazpenetik aurrera –etxebizitzaren nahitaezko uztarazpenak etxebizitzarako eskubidearen urraketa garrantzitsuenetako baten gisara definitzen ditu–.

Hemen azaldutako guztia, funtsean, Estatuaren eskumenekoa den araudi batetik heldu da, baina haren eragin dramatikoak udal esparruan gertatzen dira bereziki, zeren eta ukitutako pertsonen eta familien udaletara jotzen baitute, nagusiki, laguntza bila. Horrela, udalak bi aldiz kalteturik ateratzen dira: lehenbizi, herritarren oinarrizko eskubideak urratzen direlako; bigarrenik, krisi-ingurunean bete-betean egonik eta baliabideak sekula baino eskasagoak izanik, pobretutako pertsona eta familia guztien laguntza-eskari guztiak jasotzen dituztelako.

Etxebizitza galtzeak gizabanakoari edo familiari bizitoki oro kentzen dio, eta, aldi berean, etxebizitzarik ez izate horrek bide administratibo orotatik kanpo uzten ditu, eta, horrenbestez, eskubideak galtzen dituzte, eta ukitutako pertsonen ezin dira errealizatu, ez pertsona gisa ez familia gisa ere.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak honako erabakiak hartu ditu:

Lehenena.- Gobernu Zentrala premiatzea, Hipotekak Ukitutako Plataformak eta beste erakunde sozial batzuek proposatu duten bezala, hipotekei buruzko erregulazioaren aldaketa bat onetsi dezan, eta hartan sar dezan ordainketan ematearen figura, halako moduz non, ohiko etxebizitzaren kasuetan, bankuak hipoteka exekutatzen baldin bada eta etxebizitzaz jabetzen bada, zor guztia (printzipala gehi interesak eta epaiketaren kostuak) likidatuta geratuko baita, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan edo Estatu Batuetan egiten den bezala.

Bigarrena.- Gobernu zentrala premiatzea moratoria bat onetsi dezan edo neurriak ezar ditzan kaudimengabeziko egoera ustekabeak edo nahi gabekoan dauden familien uztarazpenak gerarazteko. Jada gertatu diren milako uztarazpenen kasuan, presaz neurriak onetsi ditzala finantza-entitateek bahitura horien ondorioz metatzen ari diren milaka etxebizitza huts horiek berehala uztarazpena jasan duten eta baliabiderik ez duten familien eskuetan jar daitezten, alokairu sozialeko araubidean, familiaren errenta erabilgarriaren % 30 sekula gainditu gabe.

Hirugarrena.- Erabaki hauek jakinaraztea Ministroen Kontseiluari eta, bereziki, Ekonomia Ministerioari eta Justizia Ministerioari.

Iruñean, 2011ko irailaren 9an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin negoziata dezan Nafarroan ETB LTDaren bidez ikusteko aukera.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eusko Jaurlaritzarekin negoziata dezan Nafarroan ETB LTDaren bidez ikusteko aukera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuak Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dezan.

2009ko uztailaren 3an sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Elkarlanerako Protokolo orokorra. Horretan, eta ez labur, ETB Nafarroako Foru Erkidegoan ikusteko aukeraz jarduten zuten gobernu biek, eta adostu ere adostu zuten. Denbora anitz pasa da eta ikusi dugu arazo-aitzakia bilduma oso bat eta oraindik ez

dela, Nafarroan, ETB LTDren bitartez ikusten, nahiz eta itzaltze analogikoa aspaldi egin dagoen. Hasierako arazo instituzionalak desagertu ziren protokoloaren sinadurarekin; gero arazo teknikoak izan ziren, baina 2010eko urtarrilaren 24az gero emana dago multiplexa; gero, batzuen iritziz, arazoa kostean omen zegoen, nork ordaindu behar zuen zer; beste batzuek, ordea, erran genuen borondate politikoa besterik ez zela zegoen arazoa.

Horri erantsi behar zaio aipaturiko Protokoloan ETB-1 eta ETB-2 ikusteko aukera hitzartu zutela gobernu biek, kanpoan utzirik ETB-3 eta ETB Sat.

Nafarroako Parlamentuak behin baino gehiagotan onartu ditu gehiengoz mozioak ETB ikusi ahal izateko LTDren bitartez, deus gutxirako balio izan dutenak. Espero dezagun orain Gobernu berriak batzuek faltan somatzen genuen borondate politikoa hori agertzea.

Hori dela eta, hurrengo proposamena aurkeztu du:

**1.-** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio negoziata dezala Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Erkidegoan ETB-3 eta ETB-4 ere LTDren bitartez ikusi ahal izan daitezen.

**2.-** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan ETB LTDren bitartez ikusi ahal izateko Eusko Jaurlaritzarekin izan behar dituen negoziatioak erraz ditzan.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da ondarearen gaineko zerga berrezartzearen aurka ager dadin.**

### **PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen baita ondarearen gaineko zerga berrezartzearen aurka ager dadin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, honako mozioa aurkeztu du, eztabaidatu eta onets dadin. Haren bidez nahi du Nafarroako Parlamentuak adieraz dezala Foru Komunitatean Ondarearen gaineko Zerga ezartzearen aurka dagoela.

Gobernuko lehendakariari sozialista Alfredo Pérez Rubalcabak irailaren 12an, igandez, iragarri zuen Ministroen Kontseiluak ondarearen gaineko zerga berreskuratuko duela, hain zuzen ere nazio-ko gobernuak berak orain dela urtebete baino gutxiago deuseztatu zuen zerga bera, zeina autonomia erkidegoei eskualdatu baitzitzaien.

Alderdi Popularraren parlamentu-taldearen iritziz, erabaki horrek kontraesan argia erakusten du, zeren eta PSOEek orain berreskuratutako nahi baitu orain dela urtebete baino gutxiago deuseztatu zuen zerga bat, hain zuzen ere aurrezten duena zigortu eta aurrezten ez duena saritzen duena. Gainera, halako zergarik ez dago inon munduan, zergapetze bikoitza baitakar: lan egitearen gaineko zerga eta aurreztearen gaineko zerga.

Parlamentu-talde Popularrak gogorarazten du nola uztailaren amaieran idatzizko galdera bat aurkeztu zion Ekonomia eta Ogasun kontseilari eta Foru Gobernuko bigarren lehendakariorde Alvaro Mirandari, argi zezan ea exekutiboak ondarearen gaineko zerga berriz ere ezarriko ote duen Nafarroan. Galdera hori sortu zen lehen lehendakariorde eta Lehendakariorde kontseilari Roberto Jiménez jaunak eginiko adierazpen batzuen harira. Izan ere, egun batzuk lehenago, UGT sindikatura eginiko bisita instituzional batean, zerga hori berreskuratzearen alde egin baitzuen. Eta galdera horren erantzunik oraindik ere ez du jaso parlamentu-talde honek.

PPn gogorazi nahi dugu, halaber, foru exekutiboko lehendakariak, inbestidurako hitzaldian, ez zuela berariazko aipamenik egin legegintzaldi honetan zerga hori berrezartzeari buruz. Teorian, foru gobernu berria zergak igotzearen aurka zegoen.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Adieraztea Foru Komunitatea ondarearen gaineko zerga ezartzearen aurka dagoela.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Eleduna: Santiago Cervera Soto

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala jar dezan abian koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa.**

### **PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala jar dezan abian koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin. Honen bidez nahi du Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzea berehala abian jar dezan kolon eta ondesteko minbiziaren antzemate goiztiarreko programa.

Koloneko minbizia herrialde garatuetan maizen gertatzen den neoplasia da. Minbiziaren ondoriozko heriotzen bigarren arrazoia da, eta haren eraginak eta heriotza-tasak gora egiten jarraitzen dute, entitate horren diagnosian eta tratamenduan izan diren aurrerapenak gorabehera.

Ezagutza zientifiko nahikoa badago minbizi hau gaixotasun saihegarri bihurtzeko.

Alde batetik, Nafarroak datu oso zehatzak ditu koloneko minbiziaren eragina, prebalentzia eta iraupena deskribatzen duten populazio-erregistroenak, eta "Europako Minbizi Erregistroen Sarea/European network of cancer registries" izenekoan parte hartzen dugu. Nafarroak hamarkadak daramatza goranzko joera erakusten kolon eta ondesteko minbiziaren eraginari eta hilkortasunari dagokienez, bai gizonen bai emakumeen kasuan, eta hartara zalantzarik gabe baieztatu daiteke

teke hori dela Foru Komunitateko osasun publikoaren arazo nagusietako bat.

Neoplasia, berriz, aurreikus daiteke. Badira diagnosi-metodo eragingarri eta ekonomikoki eskuragarriak, populazioan baheketa egin eta detekzio goiztiarra egite aldera, eta Nafarroako osasun-laguntzako sareak baditu bere zerbitzuen zorroan tratamendu eraginkorrak (endoskopia eta kirurgia), neoplasiaren hastapen goiztiarretan aplikatzeko.

Frogatuta dago kolon eta ondesteko minbiziaren prebentzioa estrategia kostu-eraginkorra dela, minbizi kasu berriak ekiditen dituen, bai eta heriotzak ere, eta orobat ekiditen ditu etorkizunean laguntza onkologikoa eman behar eragindako osasun-gastuak.

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak kolon eta ondesteko minbiziaren bahetzeko programa zeharo operatiboa taxutu du, Nafarroako erikortasuna eta populazio-patroiaren arabera eskuragarri dauden estrategiarik onenak nahiz ebidentzia zientifikoa balioetsita. Orain dela urte asko egin zen, Nafarroako Minbizi Plana egin zenean. Geroztik, 2009ko martxoan, hedabideen bidez iragarri zen, modu enfatikoa iragarri ere, "Nafarroak koloneko minbiziaren prebentzio programari buruzko duela 2010ean". Plana, baina, ez da abian jarri, eta pasatzen den urte bakoitzean ehunka dira ekidin gabe uzten diren kasuak eta ondorio kliniko eta sozial handiko minbizi bilakatzeko direnak.

Hedabideek orain dela gutxi informatu dute Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak prebentzio-programa hori ez ezartzea erabaki duela, egungo aurrekontu-murrizketen ondorioz. Ustezko erabaki horrek, halere, ez du aintzat hartzen auzi hau lehentasunezkoa dela osasun publikoaren alorrean, eta horri buruzko aurreneko lan bat badagoela aprobetxatu behar da, zeinak estrategia kostu-eraginkor bat zehaztu baitu, tratamendu onkologikoetan asko aurrezteko ekar lezakeelako.

Onartezina da osasun prebentiboko programa ezinbesteko horri uko egitea, hori bezain beharrezkoak ez diren beste gastu batzuei uko egiten ez zaien bitartean. Nafarroako Gobernuari dagoiko beharrezko denari lehentasuna ematea beharrezkoa ez denaren aldean, eta beharrezko denaren barruan dago gaixotasunak eragindako heriotzak, sufrimendua eta osasun-laguntzako etorkizuneko kostuak ekiditen dituen programa.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala abiaraz dezan Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Detekzio Goiztiarreko Programa, lehendik dauden azterlanei jarraikiz, eta lehentasuna eman diezaien beharrezkoak diren baliabideei, departamentuek dituzten bestelako

baliabideen aldean, bateragarri eginez programaren garapen eraginkorra eta Nafarroako aurrekontuek bete beharreko aurrekontu-kaudimenaren helburua.

Iruñean, 2011ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan egungo espetxea dagoen lurzatiaren lagapena lortzeko.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan egungo espetxea dagoen lurzatiaren lagapena lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Nafarroako Justizia Jauregiaren instalazio berriak (San Roke kalea, z.g.) inauguratu eta berehala bete da eraikin osoa, halako moduan non zenbait zerbitzu, esate baterako Erregistro Zibila, handik kanpoko beste bulego batzuetara eramane behar izan baitira. Alegia, esan daiteke egin den handitzea, abian jarri eta berehala agerian gelditu denez gero, ez dela nahikoa edo, gutxienez ere, ez dela gauza etorkizuneko beharrezkoak erantzuteko.

Justiziaren arloko eta harekin lotutako politika sozialen arloko beharrezkoak, ordea, handituz

doaz, eta toki eta zuzkidura gehiago behar dira. Kokalekuak, berriz, sinergiak sortzea eskatzen du inondik ere, gastu asko aurrezteko eta, batez ere, Nafarroa osoko herritarrei eskuragarriago jartzea bertako zerbitzuak eta prestazioak.

Justiziaren Hiria sortzea, hortaz, aspaldiko xedea da, behin eta berriro argudiatua.

Une honetan badago aukera bat azpiegiturak eta zuzkidura-lurzoruak edukitzeko, Iruñeko espetxe zaharra hutsik geratuko baita. Aukera hori ez da berriro emanen.

Epe ertain eta luzeko aurreikuspenak behar izan gaitu higiezin dotzional horren eta lurzati horren xedea ebatz dezagun, Nafarroako Justiziaren Hiria egiteko aspaldiko asmoa berrartuz eta alde zuzenetik egin beharreko zuzemenak eginda, gizartearen beharrezkoetarako eta Justizia Administrazioarekin lotutako zerbitzu eta prestazioetarako, hain zuzen ere.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan Iruñeko Udalean eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusian, Iruñeko egungo espetxearen eta espetxeak San Roke kalean (z.g.) hartzen dituen lursailen lagapena lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki dezan Iruñeko egungo espetxeak San Roke kalean (z.g.) hartzen dituen lursailak, hemendik gutxira hutsik gelditzen direnean, Nafarroako Justiziaren Hiriko instalazioak osatzera bideratzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Zubietako Udalarekin Miguel Ángel Mindegua Labayen aizkolariaren omenezko eskultura bat egite aldera.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Zubietako Udalarekin Miguel Ángel Mindegua Labayen aizkolariaren omenezko eskultura bat egite aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mikel Mindegia Labaien aizkolaria omentzeko eskultura.

Mikel Mindegia aizkolaria, zeinaren kirol-balentriak aski ezagunak baitira eta ez baitago zertan gogora ekarri, Ezkurrakoa da jaiotzez, baina Zubietako herriari lotuta dago orain dela hamarkadak.

Une honetan bere kirol-ibilbidearen azken urratsak egiten ari da, eta bidezkoa da Zubietako herriak omenaldia egin diezaion, herriko toki nabarmen batean brontzezko eskultura bat paratuta. Eskulturak bi metro gairai izanen litzateke, eta bere jardunaren berezko osagaiak izanen litzateke: aizkora eta enborrak.

Proiektua finantzatzeko bi bide jorratu dira orain arte:

- Nafarroako Kutxaren gizarte-ekintzako Banca Cívica aurkeztuta (Zuk aukeratu, zuk erabaki).

- Antton Espelosinek aizkolariei buruz egindako liburuaren salmentaren bidez lortutako dirua.

Bi ekimen horien bidez lortutako dirua gorabehera, aurrekontuaren zati handi bat finantzatzeko geldituko litzatekeenez gero, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan, besteak beste Zubietako Udalarekin harremanetan jartzea, proiektu hori aurrera atera ahal izan dadin.

Iruñean, 2011ko irailaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta



## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Haurren Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen eta Haurren Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunaren oroitzapenarekin, eta salatzen du generoko indarkeriak hartzen duen moduetako bat dela esplotazio hori.

2. Nafarroako Parlamentuak trafikoaren biktimekin lan egiten duten elkarteak zoriondu nahi ditu, eta ladorea eman nahi die an hori egiten jarraitzeko eta haien artean beharrezkoa den koordinazioa areagotzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak herritarrak sentzibilizatzeko kanpainetan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, sexu-esplotazioa eta trafikoa prebenitzeko elementu diren aldetik.

4. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun zintzoena adierazi nahi die hala indarkeria mota horren biktimei nola haien familia-inguruneari, bereziki nafarrei.

5. Nafarroako Parlamentuak gonbit egiten die herritarrei arbuio- eta konpromiso-jarrera har dezaten emakumeen aurkako indarkeria desagerarazteko, nagusiki haiek baitira, neskatuekin eta mutikuekin batera, sexu-esplotazioaren eta trafikoaren biktimak”

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, Alzheimerren Nazioarteko Eguna dela eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Alzheimer gaixotasuna, Alois Alzheimerrek 1906an deskribatua, endekapenezko gaixotasun bat da, gaixo horien senitarteko-zaintzaileentzat osagai emozional eta sozial handikoa, ikusten baitute gaixoak arian-arian andeatzen direla eta mendekotasun gero eta handiagoa dutela.

Dementziaren arrazoi ohikoena da, kasuen % 60-70 hartzen baititu. Urtero-urtero 4,6 milioi dementzia-kasu berri gertatzen dira munduan, eta kopuru hori aintzat hartuta, aurreikusten da 2050ean 100 milioi pertsonak edukiko dutela dementzia munduan. Espainian, 2008ko datuen arabera, 3,5 milioi pertsonak pairatzen dituzte gaixotasun horren ondorioak, gaixoak eta senitarteko-zaintzaileak batuta. AFANen arabera, 9.000 nafarrek dute gaixotasuna, eta kopuru hori gora doa urtez urte.

Alzheimerren Nazioarteko Elkartearen arabera, osasun publikoko eta gizarte-zaintzako larrialdi bat dugu aurrez aurre, eta horri aurre egiteko ekintzak berehala abiarazi beharra dago.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Gaixotasun horren garrantzia eta pisu soziala kontuan hartuta, gobernuek, instituzioek, herritar-elkarrekin eta gizarteak oro har neurriak hartu

beharra dute, besteak beste ondokoak jasoko dituzten jarduketak eginez: - Gaixotasun horretarako prebentzio eta sendatze terapia berrien garapena eta ikerketa sustatzeko politikak.

– Senitartekoei nahiz gaixoei berei laguntzeko zerbitzuak hobetzeko neurriak bultzatzea. Berrikusi egin behar dira kudeaketa klinikoko nahiz sozio-sanitarioko sistemak eta senitarteko-zaintzaileentzako laguntzak, hala laguntzaren arloan nola ekonomiarenean, beharrezkoa baldin bada Mendetasun Legea berrikusiz, gaixoen elkarteek eskatzen duten legez.

– Zentro espezializatuen sorrera bultzatzea eta gaixotasuna aurreratua duten gaixoei horietarako

irisgarritasuna erraztea, familiaren baitan zainketa egokiak jaso ezin dituztenean.

Alzheimer gaixotasuna eta dementziak oro har dira Nafarroako erakunde soziosanitarioek eta mundu osoko gobernuek aurre egin beharko dieten erronka nagusietako bat.

Nafarroako Parlamentutik gure jarrera konprometitu eskaini nahi dugu, gaixoentzako eta haien zaintzaileentzako laguntza-osagaien bilaketan eta kasu bakoitzerako neurri prebentibo eta terapeutiko egokiak ezartzeko.”

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen lan eskaintzei buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen lan eskaintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 4.803 lanpostu kudeatu ditu 2010ean zehar. Lanpostu horiek 2.542 enpresak aurkeztutako 3.646 enplegu-eskaintzari dagozkio. Datu horiek eta Nafarroan 2010ean sinatutako kontratu guztiak nahiz Nafarroan dauden enpresen gutxi gorabeherako kopurua alderatzen baditugu ikus daiteke Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren parte-hartzea oso txikia dela. 2010ean 214.609 kontratu sinatu ziren guztira (15.450 mugagabeak ziren, eta 197.626, berriz, aldi baterakoak). Nafarroan langileak dituzten enpresak 21.000 inguru dira.

2011ko irailean gaudenez, adierazle horiek aurten zer bilakaera izan duten jakin nahi dut:

- Zenbat enpresatako zenbat eskaintzaren gaineko zenbat lanpostu kudeatu ditu aurten, orain arte, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, eskura dauden azken datuen arabera? Nafarroari buruzko datu orokorraz gain, ba al dugu datu horiek ekonomia-sektoreen arabera xehakaturata jakiterik?

- Enpresa horietako zenbatek ez zuten sekula baliatu Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere lan-eskaintzak egiteko? Eta sektoreen arabera?

Iruñean, 2011ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, kontabilitate nazionalari buruzko arauak 2011ko eta 2012ko kontuetan aplikatzeak izanen duen eraginari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, kontabilitate nazionalari buruzko arauak 2011ko eta 2012ko kontuetan aplikatzeak izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion.

Hauxe da gaia: Kontabilitate Nazionalaren arauen aplikazioak Nafarroako Gobernuaren 2011ko eta 2012ko kontuetan duen eragina.

2011ko irailaren 8ko agerraldi publikoaren bitartez, jakitera eman zitzaigun kontabilitate nazionalaren arauen aplikazioak berarekin ekarri duela 2011ko diru-sarreretan 175 milioi euro gutxiago izatea, eta 2012ko diru-sarreretan, berriz, 47 milioi euro gehiago izatea. Doikuntza horiek eragin dituzten faktoreen artean, honakoak aipatzen dira: Iruña-Jaka Autobiako lanak, Nafarroako Ubideko urrezalurretako lanak, abiadura handiko trenerako lanak eta "diru-bilketa ez ziurra" deitutakoa.

Galderak:

1.- Zenbateko eragina du elementu horietako bakoitzak 2011n eta 2012an?

2.- Zer irizpide-alde eragiten ditu doikuntza horiek ukitutako elementuetako bakoitzean?

3.- Kontabilitatea dela-eta, zein tratamendu eman izan zaio orain arte eta emanen zaio etorkizunean Bideko Autobiako itzaleko bidesariari?

Iruñean, 2011ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruzkoa.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, eta Osasun Departamentuak idatziz erantzutea eskatzen du.

Hedabideen bitartez ezagutu dugu Osasun kontseilari Marta Vera Janín andreak hartutako erabakia, koloneko minbiziaren antzemate goiztiarreko programa eteteari buruzkoa.

Kontuan hartuz:

– Koloneko minbizia oso maiz gertatzen den gaixotasuna da, eta Nafarroan gehien hazten ari diren minbizietako bat ere bada. Gainera, pixkanaka gora egiten ari da arrazoi horren ondorioz hiltzen diren pertsonen kopurua.

– Koloneko minbiziaren antzemate goiztiarra erraza eta merkea da.

– Antzemate goiztiarrak nabarmen handitzen ditu sendatzeko aukerak.

Galderak:

Zenbat diru aurreztu nahi da urtean koloneko minbiziaren antzemate goiztiarreko plana kenduz?

Planaren arabera, koloneko zenbat minbizi antzeman ahalko lirateke urtean?

Ba al dago kalkuluren bat koloneko minbizia duten pertsonen osasun-laguntzaren batez besteko kostuari buruz? Zenbatekoa da gastu hori?

Iruñean, 2011ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

**Galdera, Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari buruzkoa.****AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak esaten duenaren bermez, aurkeztzen dizkio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzuteko galderak:

• Nafarroako Gobernuak esleitu al du diru-laguntzarik VW Navarrako Formazio Ikasgunerako? Zenbat diru izan da?

• Zein da VW Navarraren asmoa formaziorako?

• Krisiaren kontrako neurrien artean ba al dago beste enpresaren batendako diru-laguntzarik barne formaziorako?

• Enpresa hauek eskainitako formazioa barne promoziorako da edo irekia da edozein Lanbide Heziketako tituludunentzat?

Iruñean, 2011ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

## **Galdera, hogeita bi pertsona Nafarroa ezagutzera gonbidatuta egin den kanpaina turistikoaren kostuari buruzkoa.**

### *AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, hogeita bi pertsona Nafarroa ezagutzera gonbidatuta egin den kanpaina turistikoaren kostuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ohorea du ondoko galderak aurkezteko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáini, idatziz erantzun diezaion.

Joan den uztailaren 20an, Nafarroako Gobernuak Kulturako eta Turismoko Departamentuak turismo kanpaina baten prestaketa iragarri zuen.

Kanpaina horretan, gonbit egiten zitzairen 22 pertsonari (kazetariak eta telebista eta irrati-takozleak) Nafarroara joan-etorri bat egiteko. Adierazitakoaren arabera, kanpaina horren helburua zen "arreta erakartzea, sinpatia eragitea eta Nafarroak turistaren helmuga gisa duen interesa sustatzea". 22 pertsona horiei maletatxo bat helarazi zitzairen, non, beste opari batzuen artean, gonbit bat eman zitzairen Nafarroan egonaldi bat egiteko ostatu eta gosariko araubidean; halaber, doako zenbait sarrera eskuratu zitzaizkien gure erkidegoan jardueratutako turistikoaren gozatu ahal izateko.

Behin uda iraganik, honako galderak egin nahi ditugu:

– Zenbat diru kostatu da kanpainak?

– 22 gonbidatuetatik, zenbat etorri dira Nafarroara eskatzen zitzaizkien baldintzetan, eta zenbateko kostua izan dute egonaldi horiek?

– 22 gonbidatu horietatik, zenbatek aipatu dute Nafarroa edo zenbatek gomendatu dute gure erkidegoa udarako jomuga turistiko gisa? Eta, are gehiago, zenbatek jarri dute kartoizko figura beren lantokian, horixe baitzen kanpainaren xedea?

– Zer onura ekarri dio kanpainak turismoari gure erkidegoan?

Iruñean, 2011ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua murrizteari buruzkoa.**

*JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Carlos Longas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak egin ditu, Hezkuntza kontseilari Iribas jaunak idatziz erantzun ditzan:

Joan den irailaren 7an, Nafarroako Gobernuak 2011rako aurreikusitako gastuaren murrizketa gehigarri bat onetsi zuen, 163,6 milioi eurokoa (hau da, hasierako aurrekontuaren ehuneko 3,9),

eta, halaber, onetsi zuen beste hainbesteko kopuru bat iragatea 2012ko aurrekontuaren kargura exekuta dadin.

Ekonomia kontseilariak adierazi duenaren arabera, departamentuek autonomia dute mozketaren aplikazio zehatzari buruz erabakitzeko. Aurreikustekoa denaren arabera, eta Gobernuak berak eta haren lehendakaritzak igorritako mezuen arabera, mozketak Nafarroako Unibertsitate Publikoari ere eraginen dio.

Horrenbestez, parlamentari honek galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzuteko:

1.- Zer eragin izanen du gastuen murrizketa horrek Nafarroako Unibertsitate Publikoak duen aurrekontu-esleipenean?

2.- Erabakia hartzeko, kontuan hartuko al da zentroaren aurrekontuaren zati bat, zehazki I. kapituluak (langileak), zurrungia dela jada hasita dagoen ikasturte akademikoko irakaskuntza-premiei erantzuteko, eta, horrenbestez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren guztizko aurrekontuaren gainean ehuneko jakin bat linealki aplikatzeak eragin oso handia izanen lukeela gainerako kontusailetan eta, horrenbestez, zentroaren funtzionamenduan?

Iruñean, 2011ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longas

## **Galdera, oinarrizko errenta eskatzeko egin beharreko izapideak arintzeari buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, oinarrizko errenta eskatzeko egin beharreko izapideak arintzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ohorea du ondoko galderak aurkezteko Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariari Elena Torres andreari, idatziz erantzun diezaion.

Oinarrizko errentaren xedea da diru baliabiderik ez duten etxeetan oinarrizko premiak asetzea eta bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea sustatzea.

Gaur egun, foru erkidegoan atzerapen handiak gertatzen ari dira, bost hilabetera artekoak ere bai, premia duten pertsonak oinarrizko errenta jasotze-

ko. Halaber, oinarrizko gizarte zerbitzuak kolapsatuta daude, eta ezin diete aurre egin jasotzen dituzten eskabideei. Hartara, laguntza horren premia duten pertsonak bi hilabetezko atzerapenarekin artatzen dituzte, atzerapenak, gehienez, hilabetekoa izan beharko lukeen arren.

Bestalde, gobernuak laguntza horiek emateko egiten duen balorazioa bost hilabete ere atzeratzen ari da, ebazpena gehienez 45 egunen buruan iritsi beharko litzatekeen arren.

Hori dela eta, Talde Popularrak ondoko galderak egin ditu:

– Zein neurri proposatzen dituzu kudeaketa eta ikuskapen-prozedurak hobetzeko, bai oinarrizko gizarte zerbitzuetan, bai foru gobernuan, oinarrizko errenta kobratzeko eskarietako izapideak arintze aldera?

– Zein neurri hartu ditu zure departamentuak oinarrizko errenta kobratzearekin lotutako helburuetako bat –bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzearen sustapena– lortzeko?

– Foru exekutiboak errenta ordaintzerakoan daukan atzerapena dela eta, Nafarroako Elizbarrutiko Caritas oinarrizko errenta hori aurreratzeko beharrean aurkitzen da, betebeharrak hori Gobernuarena den arren. Horrenbestez, atzerapen horrek eragozten du Caritasek bere baliabideak beste premia batzuetara bideratu ahal izatea. Zein neurri hartuko ditu zure departamentuak puntualtasunez ordaintzeko daukan ardura bere gain hartzeko?

Iruñean, 2011ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba



## **Galdera, 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Foru Ogasunak zenbateko gastua aurreikusi du urte honetarako, protokolo aferekin lotutako kontzeptuetarako, Nafarroako 2011rako Aurrekontu Orokorren Legeko kontusailen kargura?

2.- Protokolo gastuetan sartzen diren kontusail eta kontzeptu guzti-guztien zerranda eskatzen dut.

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko abiadura handiko trenera zenbat diru bideratzeko asmoa dagoen 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko abiadura handiko trenera zenbat diru bideratzeko asmoa dagoen 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Gobernuak zer zenbateko aurreikusi du bideratzea abiadura handiko tren eraikitze dirua aurreratzeak 2001ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan eragindako interesak ordaintzera?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Reyno Arena kiroldegiaren ustiapen-kontuen emaitzari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Reyno Arena kiroldegiaren ustiapen-kontuen emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Gobernuak zer emaitza-aurreikuspen egiten du Pabellón Reyno Arena izenekoaren ustiapen-kontuei dagokienez?

2.- Zer kudeaketa-mota ezartzeko asmoa du?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Donejakue Bideko autobieren eraikuntzaren emakida-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Donejakue Bideko autobieren eraikuntzaren emakida-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Gobernuak milioiak eta milioiak ordaindu zizkion, eurotan, Bideko Autobia izeneko eraiki eta mantentzeko ardura duen enpresa emakida-hartzaileari, eta Comptos Ganberaren arabera berreskuratu egin beharko lirateke ordaindutako milioi behar baino gehiagoko horiek. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik diru hori berreskuratzeko hartu beharreko erabakiak hartzeko eta berrikusi beharreko administrazio-egintzak berrikusteko?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

1.- Zenbat diru egotzi zitzaion 2010eko Aurrekontuen Legeko kontusaili "Moderna Plana" izenekoa prestatzeko eta abian jartzeko kontzeptuak direla eta?

2.- Zer gastu-egozpen aurreikusten da Moderna Planari lotutako kontzeptuak direla-eta 2011, 2012, 2013 eta 2014rako?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

2011n Nafarroaren Eguna izenekoa ospatze aldera abenduaren 3an eta aurreko nahiz ondorengo egunetan eginen diren ospakizunak direla-eta, ondokoa jakin nahi dut:

1.- Zenbateko gastua egiten dute, guztira, Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen ekitaldi guztiek?

2.- Zer kontusaili egotziko zaizkio gastu horiek?

3.- Aurreikusitako ekitaldi guztien zerrenda xehakatu jaso nahi dut, bai eta horietako bakoitzaren kostuarena ere.

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- UPNk eta PSNk agintzen ez duten udal jakin batzuetako festak iragartzeko suziriei buruzko txostenak eta ikerketak egite aldera Nafarroako Gobernuak 2011n zehar gastatzea aurreikusi dituen diru-baliabideek, giza baliabideek eta baliabide teknikoek zenbat egiten dute?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Enplegu Planarekin lotutako baliabideei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Enplegu Planarekin lotutako baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- 2007tik gaur arte, zenbat diru baliatu da Enplegu Plana dela eta?

2.- Zenbat pertsona zegoen langabezian 2007ko urtarrilean, eta zenbat pertsona dago langabezian Nafarroako Gobernuak galdera hau jaso duen egunean?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du berehala ezer egiteko asmorik Foru Administrazioak gaur jabetzan dituen Iberdrolaren akzioen salmenta dela eta?

2.- Zein da, galdera hau jaso den egunean, akzio horien balioa?

3.- Galdera idatzi hau egin den egunean enpresei, autonomoei eta pertsona fisikoei zor zaizkien ordainketak eta itzulketak atxikiko ez balira eta ohi ez bezala aurreratera behartu ezean, zenbat aurreztuko lukete interesetan?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, Audenasari 2011n ordainduko zaion diru kopuruari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Audenasari 2011n ordainduko zaion diru kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.-Nafarroako Gobernuak zenbat aurreikusi du Audenasari aurten, 2011n, ordaintzea?

2.- Ezer aurreikusi al du nafarrek jadanik gehiegitan ordaindutako autobide horren jabetza berreskuratzeko?

Iruñean, 2011ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**3/2011 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 31koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 3/2011 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 31koa, tributu harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikulua, hona erabakia:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela tributu harmonizazioari buruzko abuztuaren 31ko 3/2011 Legegintzako Foru Dekretuari dagokionez, zeinaren bidez aldatzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**3/2011 Legegintzako Foru Dekretua,  
abuztuaren 31koa, tributu  
harmonizazioari buruzkoa, Balio  
Erantsiaren gaineko Zergari  
buruzko abenduaren 30eko 19/1992  
Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena aplikatzeko araudiari buruzkoa da. Horretarako, ezarri egiten da Foru Komunitateak Estatuako lurraldean unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio

berak eta arau substantibo eta formal berberak aplikatuko dituela. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena eta ordainketak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere lurralde komuneko datu berekin; likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak ere finkatzen ahalko ditu, baina funtsean ez dira Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetatik desberdinak izanen.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54.1 artikuluan xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide komunaren aldaketa batek behartzen badu estatuan unean-unean indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, arauetarako duen ahalaren esparruan, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzia baitu, behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Aipatutako 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, legegintza delegatu hori osatzen duten Nafarroako Gobernuaren xedapenek tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretuen titulua hartuko dute.

Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak eta osasun sistema nazionalaren kalitatea eta kohesioa hobetzeko, zerga arloko sendotzea laguntzeko, eta Estatuako abalen gehieneko zenbatekoa 2011n handitzeko neurriei buruzko abuztuaren 19ko 9/2011 Errege Dekretu-Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2011 Legea aldatu dute, eta horregatik beharrezkoa da, aipatu legegintza delegatua erabiliz, tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretu baten bidez eta 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua horri jarraituz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea; hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuaren lurraldean indarra duten arau substantibo eta formal berak aplikatu behar

dituen alderdi zehatzetan, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Bi aldaketa egin dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Lege horretan. Batetik, aldaketa nominala egin da 17.1.25.a artikuluan, maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak jokoaren jardueran estatu osorako ezarri duen araudi berriaren ondorioz, Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietate berria aipatzen baita, bai eta jokoaren gaineko tributuen izen generikoa ere.

Bigarrenik, 9/2011 Errege Dekretu-Legeari jarraituz, 2011n, urtea amaitu arte, erosten diren etxebizitzetarako zerga abantaila lortzeko neurria hartu da. Horrenbestez, etxebizitzetarako ondasun higiezin emanaldiei zerga-tasa are murriztuagoa ezarri zaie, ehuneko 4koa, lehenagoko ehuneko 8ko zerga-tasa murriztuaren ordeztuz, baina neurriak soilik aurtengo abenduaren 31ra arte izanen du indarra.

Foru Komunitateko arauaren indarra hartzeak eta Estatuko balioak eragina batera izan dezaten, berariaz xedatzen da zein egunetatik aurrera izanen duen eragina, kasu bakoitzean, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honetan xedatutakoak.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2011ko abuztuaren 31n egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

**DEKRETATU DUT:**

**Artikulu bakarra.-** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu

hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

**Bat. 17.1.25.a artikulua.** Eragina aurtengo maiatzaren 29tik aurrera izateko.

“25.a Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietateak, Itsuen Erakunde Nazionalak eta, dagokienean, Foru Komunitateko edo Autonomia Erkidegoetako Erakundeek antolatzen dituzten loteria, apustu eta jokoak, bai eta jokoaren eta konbinaketa aleatorioen gaineko tributuen zergagaiak eratzen dituzten jarduerak ere.

Salbuespenak ez ditu hartzen kudeaketa zerbitzuak eta aurreko leerroaldean sartzen diren eragiketen osagarri edo ordeztuko izan daitezkeen gainekoak, ez badute jokoaren gaineko tributuen zergaia eratzeko, salbu eta bingoa kudeatzeko zerbitzuak.”

**Bi.** Hamabosgarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hamabosgarren xedapen iragankorra.-Etxebizitzaren emanaldiari aplikatu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa.

Aurtengo abuztuaren 20tik aurrerako eragina eragin eta soilik 2011ko abenduaren 31ra arteko indarrarekin, ehuneko 4ko zerga-tasa murriztua aplikatuko zaie foru lege honen 37.Bat.1.7.a artikulua aipatzen dituen ondasun emanaldiei.”

**Azken xedapen bakarra.-** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, kasu bakoitzean ezartzen dituen ondorioekin.

